

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2022ko abenduak 23 · 1252 zenbakia



## EUSKARA EIBARTAR GUZTIONA

Zorionak eta urte berri on!!

# EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA

# gremioen gida



943-206776

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnua: 943 12 73 50  
www.tinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** SERVICIOS  
INDUSTRIALES  
E.I.T.  
TRABAJOS  
INDUSTRIALES  
Y  
CONSTRUCCION  
E.I.T.  
Info@ejbetsolva.com 551.940.00.38.00  
AJT Surtimosa S.L.  
Barrena, 6 - beheko ed.

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
HELBIDE  
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arkitzateko Zuhaitz

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnua: 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK  
Zoru mota guztiak  
Pinturak / Dekorazioak  
Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com  
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16



## ELEKTRIZITATEA

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

# Jarraitu gaitzazu!



"...euskaraz eta kitto" bandoak 40 urte bete zituen eguaztenean. Sasoi hartan euskararen bidezidorrak zabaltzen hasi ziren eta orduan kaleratutako Bandoak euskaraz egitea eskatzen zien euskara zekitenei, ez zekitenek ere hizkuntza erabiltzeko aukera izan zezaten. Horixe izan zen Mikel Larrañaga orduko alkateak helarazi zuen mezua. Erabileraren erronka oraindik gaintitzeke dago, baina hori ere iritsiko da.

Bihar Olentzero eta Mari Domingi kalejiran ibiliko dira herriko kaleetan zehar eta eibartarron azken eskutitzak jasoko dituzte udaletxean. Gainera, astean zehar herriko eskoletan ibili dira umeak agurtzen.

@etakitto



etakitto.eus



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Zertarako trenbidea estali?

Europako bankuek Espainiako Erresumari mailegaten dioten 100 euro bakoitzeko, 46 euro ez dira itzuli behar eta 54 euro itzulgarriak dira; hau da, bueltatu egin behar dira eta, gainera, maileguan utzitako diru horren interesak ere ordaindu behar dira. Europako mailegu horiek onartzen direnean ezin dira soilik 46 euro horiek jaso eta 54 euro jaso ez (46a ezinezkoa da 54a gabe, bestela ez dira kontuak ateratzen).

Udalak ez du euro bat ere itzuli behar. Ez horixe! Trenbidea estaltzea ez da udalaren obra bat. Eusko Jaurlaritzaren, ETSren, obra da-eta. Baina eibartarrok mailegu horiek ordaindu behar ditugu, Euskadiko gainerako herritarrek bezala. Next Generation maileguak jasotzeko Europak ezarritako baldintzak langileentzako oso baldintza gorretan egin dira: 70.000 milioi euro baino gehiago eta haien interesak itzuli behar dira. Batzuk interes bigunak ordaindu behar direla esaten digute. Hori ere entzun egin behar! Hori Botin familiak esateak... Europako bankuek ez digute ezertxo ere opari egiten eibartarroi.

Trenbidearen estalki hori, lardaskeria hutsa izateaz gain, ez da doakoa. Oso obra garestia da. Ba al da inor Errege Magoak eibartarrontzat diru-zakuekin Europatik datozela sinestarazten saiatzen denik? Hobe genuke mailegu horiek benetan behar diren proiektuetan erabiltzea, eta trenbide gainean kajoiak jartzeari lagatzea; bestela, faktura benetan kolosala izango da.

Oskar San Martin

## Auziari heldu, heldutasunez

Elena Ibañez Anuncibay EAJ-PNVko zinegotziak abenduaren 16an ...eta kitto!-n idatzitako eskutitza irakurrita zur eta lur geratu naiz. Azalpen koherente bat topatu nahian nabil bertan aipatzen diren hainbat gaiari.

Estazioa eta Azitain artean trenbidearen gainetik egin nahi den pasealekuaren harira, Elenak dio ekialdeko bizilagunen egoera “injustua” dela, eta “kalte handiak ekarriko dizkiela bizilagun askori”. Ez dut zalantzan jarriko baieztapena, nahiz eta gaiari eskatzen duen konplexutasunarekin eta zorrotzasun handiagoarekin heldzea beharrezkoa dela uste dudana, orokortasunetatik harago.

Baina galdera honakoa da: proiektua udal plenoan bozketara eramane zenean zergatik abstenitu ziren Elena eta EAJ-PNVko zinegotziak? “Injustutat” deskribatzen duten egoera baten aurrean, eta publikoki “bizilagun kaltetuen” defentsarako hitzak zabaltzen dituztenean, zergatik ez zuten proiektuaren aurkako botoa eman?

Benetan bitxia da EAJ-PNVren jarrera. Itxuraz bizilagun batzuen interesak babesten dituzte, baina gero plenoan egindako bozketetan ez dute proiektuaren aurkako posizioirik hartzen; are gehiago, 2009an proiektuaren aldeko bozka eman zuten.

Sentsazioa dut gauza bat esaten ari direla beste bat egiten duten bitartean. Jokabide horrekin ez al dira ekialdeko bizilagunak (eta eibartar oro) inuzentzetat hartzen ari?

Demagogia alde batera utzi eta auziari zintzotasuna gehitzea falta zaiolakoan nago.

Xabier Luke Astigarraga

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONERAKO** → Mesedetan. “Parkatik, baiña bixon onerako egin juat”.

Pertsona ona, zintzoa. Gaztelerazko 'hombre de bien'. “Gizon onerakua jatzu uezaba”.

**ONTZAT HARTU** → Onartu, balekotzat hartu. “Orduan, gatxizena ontzat hartzen ez eben guztieri adarjotze gehixago editten ei zetsen”.

## 1953

### Rialtoko jatetxeko zerbitzariak

Azken urteotan behin-behineko Merkatu Plazarako erabili zen eraikina aurretik Rialto zinema izan zen eta, hori baino lehen, jatorriz, kafetegia eta dantzalekua. Musika zuzenean eskaintzeko orkestra propioa ere izan zuen (Plazaolaren argazkia).



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 23</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ZAPATUA 24</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>DOMEKA 25</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 26</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>MARTITZENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 30</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)

**GAUEZ BETI**, 2022an,  
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Fausto Gutierrez Martin**. 78 urte. 2022-12-13.
- **Maria Teresa Mandiola Areitio**. 99 urte. 2022-12-14.
- **Jose Antonio Oria Balzola**. 65 urte. 2022-12-15.
- **Francisco Gomez Gallo**. 92 urte. 2022-12-16.
- **Lourdes Revilla Arrizabalaga**. 64 urte. 2022-12-16.
- **Naima Bousbaa**. 51 urte. 2022-12-16.
- **Manuel Gutierrez Gonzalez**. 74 urte. 2022-12-17.
- **Jon Ander Odriozola Goirizelaia**. 57 urte. 2022-12-18.
- **Jose Antonio Gomez Cid**. 53 urte. 2022-12-18.
- **Monica Candelas Urbano**. 92 urte. 2022-12-20.
- **Jose Angel Kerr Castellanos**. 60 urte. 2022-12-20.



## Herriko merkataritzaren erreferentziazko atari berriua

Udalak, Eibar Merkataritza Gune Irekia (EMGI) elkartearen laguntzarekin, [www.erosieibarren.eus](http://www.erosieibarren.eus) webgunea berriua du, eta aurreantzean erreferentziazko atari digitala izango da, Eibarren merkataritzari lotuta egiten diren ekintza guztietarako. Horrela, herritarrek zein merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan lanean dihardutenek, esku-eskura izango dute beraien interesekoa izan daitekeen informazio guztia: establezimenduak, erosketa-bonuen kanpainak, merkataritza-gida, eta Udalak eta EMGIk antolatutako beste ekintza batzuk, besteak beste.

Alkatearen berbetan, “web orriari funtzio berriak eman nahi izan dizkiogu, unean-unean bultzatzen ditugun merkataritza sustatzeko jarduera guztiak bateratzeko. Zalantza barik, oso tresna erabilgarria izango da eta, gainera, herritarrek sektore horri buruzko informazio guztia erraz eskuratu ahal izango dute”.

Berritasunen artean bi hauek aipatu daitezke: batetik, oparixartelak erosteko gune bat, astelehenean hasi zen Eibar Oparitu txartela Gabonetako kanpainaren barruan; eta, bestetik, urtarrilean saltokien eta zerbitzuen direktorio global berria argitaratuko da, gida bat kaleratuz.

Eibar Oparitu txartela kanpainari dagokionez, txartela atxikitako dendetan eta ostalaritza eta zerbitzu-establezimendu guztietan erabili ahal izango da, betiere datafona badute. Izan ere, erosketen gastu-zenbatekoak txartelitik deskontatuko dira zuzenean. Aipatutako webgunean eros daitekeen txartela Eibarko 170 establezimendu baino gehiagotan (dendak, zerbitzuak, ostalaritza eta aisialdia) erosteko zein opari gisara emateko erabil daiteke eta lehen 420 txartelak promozio berezia daukate. Kanpainari buruzko argibide guztiak webgunean daude.



## Astelehenean zabalduko dituzte Astelenako haur parkea eta izotz-pista

Astelehenean, abenduaren 26an zabalduko ditu ateak Gabonetako haur parkeak Astelenan eta, harrera oso ona izaten duenez, martxoaren 4ra arte egongo da martxan. Eta egun berean ipiniko da martxan patinatzeko izotz-pista, Errebal Plazan, urtarrilaren 8ra arte. Bestalde, asteburu honetatik hasita, barrakak egongo dira martxan Txaltxa Zelaian eta Urkizuko parkean. Ekimenak EMGI elkarrekin eta Udalak antolatutako Gabonetako kanpainaren baitan prestatu dituzte eta, aipatutako guztietan ibili ahal izateko txartelak herriko denda eta tabernetan banatuko dituzte, 20 euroko gastua egiten duten bezeroen artean.



## Algaraklown Ospitaleko Pailazoen egutegiak

Algaraklown Ospitaleko Pailazoen egutegiak ipini dituzte salgai, 10 eurotan, Untzagako dorre azpiko dendan, Ilargin (Urkizu) eta Txema elikagai dendan (Amañan).



## Erdialdeko kaleak trafikoarentzat itxita egongo dira jaietan

Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, Gabonetako jaiak direla eta, herriko erdialdeko kaleak trafikoarentzat itxita egongo dira data eta ordutegi hauetan: bihar (abenduak 24), 11:00etatik abenduaren 25eko 22:00ak arte; abenduaren 31ko 12:00etatik urtarrilaren 1eko 22:00ak arte; eta urtarrilaren 5eko 15:00etatik urtarrilaren 8ko 22:00ak arte.



## Familien artean banatzeko elikagaiak lapurtu eta zaborretara bota egin dituzte

Eibar-Ermuko Gurutze Gorriari lapurreta egin zioten aurreko astean, erakundeak duen elikagaien biltegian. Gertatukoaren harira salatu dutenez, “zoritzarrez, aurreko astean lapurrak sartu ziren lokalean, eta horrek behar-beharrezko produktuak galtzea ekarri du, hala nola olioak, umeentzat janari-potetxoak edo pixoihalak. Lapurretaren ondorioz, produktuak galtzeaz gain, horrek kalte erantsia ekarri du, produktu horietako ba-

tzuk udalerriko zaborrontzietan aurkitu baitira, eta horrek are larriagotzen du egoera”.

Hori dela eta, Eibar-Ermuko Gurutze Gorriak gertatutakoaren berri eman nahi izan du, eta argitu nahi izan du emandako produktuak beti ondo kudeatzen dituela erakundeak, “kalteberatasun-egoeran dauden herritarrei oinarritzko elikagaiak emateko, eta inolaz ere ez direla gaizki kudeatzen”.

## Sanandresak ospatzeko bazkaria egin dute Gasteizen

Gasteizen bizi diren eibartarrek San Andres egunaren bueltan egin ohi duten bazkaria egin ahal izan dute berriz ere, azken bi urteetako etena eta gero. Alde Zaharreko El Portalón jatetxean bapo bazkaldu eta ederto igaro zuten eguna eta, gainera, Javier Alcobak (Mecalbe) emandako Arrate Eibar Eskubaloi-ko kamiseta zozketatu eta Mikel Urkidik eraman zuen saria.





## Bigarren Hezkuntzako ikasleek enpresak gertutik ezagutzeko programa berria

Udalak STEAM DBH izeneko programa ipini du martxan, Eibarko Bigarren Hezkuntzako ikasleek enpresa-esperientziak zuzenean ezagutu ditzaten. Lehen edizio honetan 135 gaztek eta inguruko 22 enpresak hartuko dute parte eta, horri eskerrak, 34 lanpostu ezagutuko dituzte ikasleek. Parte-hartzaileek La Salle Azitainen, Aldatzen eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan ikasten dihardute. Ikastetxe horiek bat egin dute ekimenare-

kin, eta Armeria Eskola Elkartek garatuko du programa, Udalak finantzatuta.

Azaldu dutenez, lau helburu lortu nahi dituzte proiektuarekin: inguruko enpresak gertutik ezagutzea; lanpostu errealak bertatik bertara aztertzea, langileekin batera ordu batzuk igaroz; lanpostu bakoitza betetzeko zer ikasketa egin behar diren jakitea; eta ikasketa horiek eskaintzen dituzten ikastetxe edota unibertsitateekin harremanetan jartzea.

## Presoen aldeko hainbat ekimen antolatu dituzte datozen egunotarako

“Etxera bidea gertu” dinamikaren baitan, abenduaren 31n, 19:00etan, manifestazioa egingo da, Untzagatik hasita; urtarrilaren 1ean, 12:00etan, Kalamuan talde argazkia egingo da; urtarrilaren 4an, 19:00etan, “Ikusezinak. Erbestera-tuen haurrak” Miren Azkarateren liburua aurkeztuko dute Topalekuan. Bestalde, urtarrilaren 7an Bilbon egingo den mobilizaziora joateko autobusak antolatzen ari dira eta, izena emateko, Guridi, Buenos eta Depor tabernetara joan daiteke (azken eguna urtarrilaren 4a, 18:00etan). Prezioa 8/10 eurokoa izango da, diru-sarreraren arabera.



## Urtarrilean hasiko dira Eibarren Bizi harrera programako saioak

Aniztasunaren Unitateak “Eibarren Bizi” harrera programa berreskuratuko du datorren urtearen hasieran. Atzerritik Eibarrera bizi izatera etorri berri direnentzako programari esker, biztanle berriei hobeto gizarteratzeko lagungarria izan daitekeen informazioa eskuratzeko aukera ematen zaie.

Programa urtean hirutan garatuko da eta, 2023ko urtarrileko deialdian, saioak urtarrilaren

20an, 23an, 25ean, 27an eta 30ean eta otsailaren 1ean izango dira, 10:00etatik 13:00era, Portalea eraikineko 3. solairuko ikastaro gelan. Parte hartu nahi dutenek Gizartekintzan eman behar dute izena, eta programako saio guztietan parte hartzeko konpromisoa sinatu behar dute. Izan ere, programa amaitu ondoren, parte-hartzaileek bertaratze-ziurtagiria jasoko dute.



Amaierara iritsi da Eibarren eta eskualdean ekintzailetza sustatzea bilatzen duen Heldu! programaren lehen edizioa. Parte-hartzaileek egindako lan sendoa ikusteko aukera izan dugu aste honetan. Hainbat saiotan, ekintzaile izatera iristeko ekintzaile batek bidean behar dituen puntu inportanteak landu dituzte, arlo desberdinetako profesionalen laguntzarekin.



# Ekintzaileek euren enpresa-ideiak aurkeztu dituzte



Heldu! ekintzaileentzako programari amaiera borobila emateko ekitaldi berezia egin zen abenduaren 19an Debegesako lokaletan. Programaren lehen edizioa izan da aurtengoa, eta parte hartu duten ekintzaileek euren negozio-ideiak jendaurrean azaltzeko aukera izan zuten, giro atseginean eta ilusioz beteta.

Ekintzaile bakoitzak 5-10 minutu izan zituen bere enpresa-proiektua azaltzeko eta, ondoren, galderentzako tarte egon zen. Azken hilabeteotan mamituz joan diren proiektuak azaltzea zen helburua, eta ahalegin handia egin zuten buruan zituzten ideia guztiak transmititzek; batzuetan, gainera, oso modu originalean.

Irailan hasitako ibilbidean zehar arlo ezberdinetako adituen aholkularitza etengabea izan dute, eta euren ideiak ondo plasmatzeko oso baliagarria izan dela adierazi zuten behin eta berriro.

Eibarko Udalaren eta Debegesaren inizatibari esker jaiotako programa da Heldu!, eta bere helburua da Eibarren enpresa-jarduera berriak sortzea, eskualdeko ehun ekonomikoa eta haren lurralde-lehiakortasuna indartzeko asmoz. Ana Telleria Eibarko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza saileko zinegotziak esan zuen ilusio handiarekin ekin zitzaiola programari

eta arretaz eta gustura entzun zituen ekintzaileen aurkezpenak. Sektore desberdinetako ekintzaileak batzea lortu du Heldu! programak eta, laburbilduz, bost dira sortu diren proiektuak:

- PLAGANATURA sortu du Ivan Rogel ingurugiro-zientzialariak, eta bere asmoa plagei aurre egiteko enpresa sortzea da.

- BDL proiektua sortu dute ingeniaritza arloko Braulio Villalon, David Ramasco eta Luis del Campok. Industriarekin lotutako zerbitzuak emango dituen enpresa sortzea da euren asmoa.

- Alain Zulaika magoak NIALA izena jarri dio bere proiektuari. Magia lantzen du Alaine, eta orain arte zaletasuna izan dena ogibide bihurtu nahi du.

- Eloy Vivarrek EGOTECHNIC aurkeztu zuen. Arma-gintza tradizionalako tailer bat birmoldatu ahal izateko formula bat aurkitu nahi du, fabrikazioko edo lan-antolaketako teknika berriak erabiliz eta, batez ere, digitalizazioaren bidez.

- IRBIS Power Systems landu dute Oroitz Elgezabal eta Bogdan Nedavniy-ek. Helburua da teknologia berritzaileen bitartez jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten produktuak garatzea.



Katedralaren atari berria. RAMONBEITIA



## Astelena, Ametsa eta Guridi Gilda Lehiaketako irabazle

Astelehenean banatu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak VII. Gilda Lehiaketako sariak. Gilda tradizional onena Astelenakoa izan zen epaimahaiaren ustez eta gildarik berritzaileena, berriz, Ametsakoa. Publikoaren saria Guridi tabernak bereganatu du aurten eta, bozketan parte hartu dutenen artean zozketa egin eta gero, Elena Etxaidek irabazi du bilaguntzako asteburuko egonaldia. Euskeraz primeran! ekimenaren barruan urtero antolatzen du

...eta kitto!-kgilda lehiaketa. Aurten ere harrera ona izan du, tabernarien aldetik ez eze, "baita herritarren artean ere. Mugimendu handia egon dela esan digute tabernariak, jendeak zirkuituak egin ditu hiru egunetan gildak probatzeko", diote elkartetik. Eta gilden kalitateari dagokionez ere, "maila egon da aurten ere; ikusi da parte-hartzaileek kalitatezko generoa erabili dutela gildak egiteko. Oso gilda gozoak jan ditugu", epaimahaiak dioenez.

## Euskeraz primeran! mantelak banatu ditu ...eta kitto!-k

Otorduak eskaintzen dituzten taberna eta jatetxeek aste honetan jaso dituzte Euskeraz primeran! ekimeneko mantelak. Paperezko manteltxo indibidualak dira eta ostalaritzan tabernarien eta bezeroen artean erabili ohi diren hainbat berba eta esaldi jasotzen dituzte: zenbakiak, edarien izenak, kafeak, zenbat balio du... Azken batean, tabernarien eta bezeroen arteko euskarazko harremana erraztea da ekimen berri honen helburua.



## Oier Guillan Harixa Emoten saioan izan da

Euskarazko literatur tertulien urteko azkeneko saioan izan da idazle, kazetari eta antzerkigile donostiarra. Mr Señora liburuarekin etorri da Guillan Eibarrera eta irakurketataldeko kideekin aritu zen solasean zazpi antzezlanen osatutako lanaren inguruan. Gabonetako oporren ostean itzuliko dira berriro Harixa Emoten literatura saioak, Ainhoa Aldazabalek gidatuta.

## Kalean da abenduko Txikitto! aldizkaria

Urteko azkeneko alea jaso dute aste honetan Eibarko LHko ikasleek. Gabonen inguruko eduki berezia biltzen du hilabete-kariak, baina ez hori bakarrik. Lehen Hezkuntzako zazpi ikastetxeek, azken asteotan egin dituzten ekintzen berri emateaz gain, aurtengo Euskararen Eguna nola ospatu duten ere kontatzen dute, eta ikasleek eurek egindako txiste, denborapasa, ipuin eta beste hamaika konturekin gozatuko dute irakurle gazte zein helduek.



# “Peru herrialde gobernaezina da eta kongresuak herrialdea bahituta dauka”

IÑAKI AZKUE • Ikaslea Perun



Peru oso egoera ezegonkorra ari da bititzen. Azken sei urteotan sei presidente eduki ondoren, hilaren hasieran Pedro Castillo presidentea hartutako neurriek ez zuten berak nahi zuen emaitza eduki. Estatu kolpea emateaz akusatuta, kargutik kendu zuten, bere gobernuko presidenteordea zen Dina Boluarte presidentetza hartuz. Horren aurrean herria kalera atera da eta hainbat hildako egon dira

**E**goera hori gertutik bizi du Iñaki Azkue eibartarrak, Liman bizi den ikasleak. Gainera, etorkizuneko politologoa izanik, Azkuek lehen azaletik bizi nahi izan du Perun gertatzen ari dena, egoera ahalik eta ondoen ulertzeko. Martitzenean egin genuen berba berarekin eta, bertako egoera hain aldagarria denez, baliteke egun hauetan gauza batzuk aldatu izana, baina bertan bizi denaren berri jaso nahi izan dugu bere berben bitartez.

## Hasteko, zer moduz zaude?

Orain arte ondo egon naiz, ez dut beldurrik pasatu. Liman bizi naiz eta hemen ez dago etxeratze-agindurik. Beraz, gora-behera guztiekin, bizi naizen auzoan nahiko bizitza normala egin dezakegu. Hori bai, hiriren erdialdean polizia asko dago eta ia ezin gara Limatik irten. Gabonak Arequipa, Machu Picchu eta Bolivia ezagutzeko aprobetxatu nahi nituen, baina ezin izango dut.

## Gauzak egun batetik bestera aldatzen dira Perun, baina zein da egoera gaur egun?

Asteburuan pixka bat deskonektatu nuen, baina bai, egun batetik bestera dena aldatzen da. Atzo (astelehenean) irakurri nuen 26 hildako eta 700 zauritu inguru

egon direla manifestazioetan. Politikari begira, kongresuan hauteskundeak aurreratzeko eztabaidak egiten ari dira, baina barixakuan ezezkoa gailendu zen. Beraz, berriz dabilta kontu horrekin gora eta behera. **Besteak beste, Boluarte lehen ministroa kargu-betu du berriki.**

Bai, asmo hori zuen behintzat. Bestetik, kultura ministroak dimititu egin du, beste batzuekin batera.

## Zaila da hitz gutxitan azaltzea, baina nola iritsi da Peru egoera horretara?

Castillo presidentea ahultasun handia zuen. Gainera, kongresua eta botere ekonomikoak bere aurka joan ziren hasieratik. Izan ere, eurei ez zien grazia handirik egiten ezkerreko presidentea edukitzea (ezkerrekoak kakotx tartean, arlo sozialean nahiko kontserbadorea zelako). Sindikalista zen eta Peruko mendietatik zertoren, eta hainbat sektoretan arrazismoa dago jende horrekiko. Beraz, nolabaiteko agresibitatea egon da bere aurka. Bere gobernuak zenbait erreforma onartzea bultzatu zuen, beharrezkoak diren erreformak, baina kongresuak eraitsi egiten zituen. Azken urtean bere aurkako bi zentsura mozio bozkatu dituzte eta Castillok kongresua ixtea erabaki zuen egunean hirugarren aldiz bozkatu behar zuten bere aurkako zentsura mozioa.



Ikasle-trukean joan da Iñaki Azkue Perura eta hasieratik bizi izan ditu bertan gertatu diren istiluak.

### **Zer iruditu zaizu Castilloaren lana?**

Ez dakit ezgaia izan den, baina ez da jende aproposarekin elkartu. Asko alden du zen boterera eraman zuten jendearengandik eta bere alderditik bota zuten. Beraz, nekeak eragindako haserrealdian (hori sinetsi nahi dut behintzat), “honaino iritsi gara” esan zuen. Peru herrialde gobernaezina da eta kongresuak herrialdea bahituta dauka, ez duelako ezer egiten eta ez duelako ezer egiten uzten. Hala ere, uste dut Castillo ez zitzuela bere babesak ondo neurtu, bakarrik gelditu zelako. Gobernua eta armada berarengandik bereizi ziren, eta Liman ez zuen herriaren babesik jaso (azkenean, mingarria da esatea, baina Peru Lima da). Ondorioz, hiru edo lau ordutan kargutik kendu eta kartzelara eraman zuten, ezer gertatuko izan ez balitz bezala.

### **Eta nolakoak izan dira Boluarteren lehen egunak?**

Hasieratik akatsak egin ditu. Herrialdea krisi politiko sakonean dago eta bere lehen diskurtsoan esan zuen 2026ra arte egongo zela. Jendeari hori ez zitzaion baxterez gustatu eta kalera irten ziren hauteskunde eske.

**Herrialdeak orain egin du eztanda, baina sei urtetan sei presidente ezberdin izan dituzte. Arazoa ez da berria.**

Astelehenean ministro ohi eta alkate batzuk zeuden bilera batean egon nintzen eta batek zera galdetu zidan: “Alderdi politikorik gabeko demokrazia existitu ahal dela uste duzu?”. Ezetx erantzun nion. Baina Perun hori da gertatzen dena. Hemen ez dago guk ezagutzen dugun moduko alderdi politikorik. Alderdiak daude, baina marka pertsonalak dira. Hau da, pertsona bat hauteskundeetara alderdi batekin aurkezten da, baina bere marka da, beste barik. Orduan, idazkari nagusia baino, buruzagiak dira (kaudilloak), eta nahi dutena egiten dute, atzetik ez duelako alderdi bat zer egin dezakeen edo ez esateko. Kongresukide askok ez diete alderdien interesei jarraitzen. Ziurrenik enpresaren batek dirua emango zien hauteskundeetara aurkezteko, eta enpresen interesen alde egiten dute. Gaur egungo kongresuari ez zaio interesatzen herrialdea erreformatzea, nahiago dute dagoen moduan geratzea. Mundua aberatsenen esku dago, baina Perun askoz ere gehiago igartzen da hori. Herrialdearen %1ek dena kontrolatzen du (merkataritza, hedabideak, enpresak...) eta beste %99a justu-justu bizi da.

# “Medikuntzan gauza zehazgaitzen aurka ari gara borrokan denbora guztian”

CIRIACO AGIRRE • Medikua



Zapatuan ‘Viteritarrak. Hiru belaunaldi medikuntzan’ liburua aurkeztu zuten, Antxon Narbaizak Saenz de Viteri mediku-familiaren inguruan idatzitako lana. Bertan Javierren, Isaac semearen eta Albertoren ibilbidea kontatzen du Narbaizak eta herriari egin dioten ekarpena nabarmentzen da. Aurkezpen ekitaldian Alberto Saenz de Viteri bera egon zen eta, ekimena aprobetxatuz, Udalak beste mediku eibartar bat omendu zuen Txopitea eta Pakea sariarekin: Ciriaco Agirre Errasti.

**A**girre Errasti barne-medikuntzaren arloan ospe handienetako sendagileetako bat da, EHUKo Medikuntza Fakultateko Patologia eta Klinika Medikoetako katedraduna eta Bilboko Gurutzetako Ospitaleko Barne Medikuntzako Zerbitziburua 1972tik hona. Gainera, Espainiako Barne Medikuntzako Elkartearen ohorezko lehendakaria da (1998az geroztik), International Society of Internal Medicine-ko kide, eta Barne Medikuntzako Batzorde Nazionaleko partaide. Ego Ibarrek dioenez, “mundu osoan ezagunak diren hainbat zientzia-argitalpen idatzi ditu, ikastaroak, mintegiak eta udako ikastaroak zuzendu eta eman ditu estatuko zein nazioarteko unibertsitate askotan, eta 20 doktore-tesi baino gehiago gidatu ditu”.

## Eibartar batentzat zer da Txopitea eta Pakea garai-kurra jasotzea?

Demaseko ilusioa eta poztasun sakona, nik behintzat hori sentitu nuen saria jaso nuenean.

## Nolako ekitaldia izan zen zapatukoa?

Ekitaldi hunkigarria izan zen. Nire omendiaz gain, Viteritarrak omendu zituzten euren inguruko liburuaren aurkezpenarekin, eta jende asko bildu zen bertan. Oso ekintza atsegina izan zen eta ni behintzat oso lasai sentitu nintzen. Alkateak publiko aurrean aurkeztu gintuen lehenik eta, gero, zenbait hizlarik hartu zuten parte, tartean Antxon Narbaiza ‘Viteritarrak’ liburuaren egileak eta Alberto Saenz de Viterik, oso gizon atsegina denak.

## Harremana izan duzu Viteritarrekin?

Oso gutxi, ikasketak kanpoan egin nituelako. Isaac jauna ezagutu nuen eta Javierrekin tratu gehiago eduki nuen, baina ez nuke esango harreman pertsonal handiegia izan nuenik. Izan ere, Bilbora etorri nintzenean bera gaixotu egin zen eta ez nuen aukera handirik izan hobeto ezagutzeko. Oso pertsona ona zen. **Viteritarren familia medikuntzari lotuta egon da. Zure familiaren kasuan ere horrela izan da?** Pentsa, nire alaba familiako bosgarren medikua da. Familiako lehenengo medikua nire birraitona izan zen, Vicente Agirre jauna, Eibarko mediku titularra



Ciriaco Agirre eta Alberto Saenz de Viteri joan den zapatuko ekitaldian. MIKEL ASKASIBAR

izan zena. Hurrengo medikua aitzitza izan zen, Ciriaco Agirre jauna, Eibarren bustoa eta bere izenean kalea duena. Bere anai bat ere medikua izan zen, osaba Perico, oftalmologoa. Gero ni hasi nintzen medikuntzan eta, azkenik, alaba. Erradiologoa da Galdakaoko ospitalean.

**Odolean daramazue medikuntza! Familian ohiko kontua izanik, presioa sentitu zenuen medikuntza ikasteko orduan?**

Ezta gutxiago ere, ez nuen batere presiorik sentitu. Aita bide-ingeniarria zen, pentsa sasoi hartan hori izatea zer zen, eta familian bera izan zen medikua izan ez zen bakarrenetakoa. Medikuntza eta biologia

**“Medikuntza atsegin handiz ikasi dut, baina oso gogorra izan da. Oso karrera latza da”**

gustatzen zitzaizkidan eta bide hori hartzea erabaki nuen, beste barik.

**Nolako bidea izan da?**

Karrera amaitu nuen eta erresidentzia Madrildo Puer-ta del Hierro klinikan egiteko zortea izan nuen, sasoi horretan Espainian zegoen klinikarik garrantzitsue-nean. Sei lagun bakarrik sartu ahal ziren erresidentzia egitera eta zerrendako lehen postuan nengoenez, ez nuen arazo handirik izan bertan sartzeko.

**Lehenengo postuan! Ez da gutxi...**


Beno, egia esan curriculum indartsua eduki dut.

**Medikuntzak ikasketa eta dedikazio handia eskatzen du. Gogorra izan da? Atsegin egin duzu?**

Medikuntza atsegin handiz ikasi dut, baina oso gogo-rra izan da. Medikuntza oso karrera latza da. Kontuan izan denbora guztian gauza zehazgaitzen aurka ari garela borrokan. Ez da beti erraza izaten ondorioak ateratzea eta jendeari laguntzea.

**Zergatik joan zinen barne-medikuntzaren bidetik?**

Beti gustatu izan zaidalako. Gaixoa modu integralean ikusteko aukera ematen du barne-medikuntzak. Hori bai, etengabeko ikaskuntza eskatzen du.



**“Medikuntzan denbora guztian mugitzen zara eremu irristakor batean”**

**“Mediku batek egiten duen ekarpenik handiena gaixoa diagnostikatzen eta sendatzen saiatzea da”**

**Urteak pasa dira medikuntzan hasi zinenetik eta harrizkerok hainbat gauza aldatu egin dira, aurrerakuntzak egon dira, teknologia berriak... Nola egokitu zara sasoiari sasoiakora?**

Ikasten, ez dago beste modurik. Ikasten eta gaixoak ikusten.

**Zure ikerketek eta idatziekin mundu mailan izan dute oihartzuna...**

Bai. Gauza ezberdinak egiten saiatu naiz, batzuk positiboagoak eta beste batzuk ez hainbeste, baina horrek eguneratuta egoten laguntzen zidan.

**Zein esango zenuke izan dela medikuntzari egindako ekarpenik handiena?**

Ez dakit, zaila da esaten. Nire iritziz mediku batek egiten duen ekarpenik handiena gaixoa diagnostikatzen eta sendatzen saiatzea da. Dena dela, ez da beti erraza izaten gauzak ondo egitea. Medikuntza eremugabeko ziurgabetasuna da. Denbora guztian eremu irristakor batean mugitzen zara eta denbora ere aurka duzu. Zalantza asko sortzen zaizkizu eta batzuetan oso zaila izaten da erabakiak hartzea. Tamalez, gaixoak hori ulertu behar du.

**Orain erretiratuta zaudela, nola baloratuko zenuke medikuntzan izan duzun ibilbidea?**

Egin ditudan gauzetan eta hori aurrera ateratzeko egindako ahaleginean pentsatzen badut, asko kostatu zaidan zerbait izan dela esango nuke, zalantzarik gabe. Gauza guztietan bezala, alde onak eta txarrak egon dira. Karrera handia da, baina oso zaila.

**Bilbon bizi zara, baina nolako harremana duzu Eibarrekin?**

Ni, berez, Bilbon jaio nintzen, baina gerra sasoiari jaio nintzelako eta bertan jaiotzea tokatu zitzaidalako, Cuencan jaio ahal nintzatekeen bezala. Eibar oso berezia da niretzat. Familia guztia Eibarkoa da eta, gainera, oso lotura estua izan dute Eibarrekin. Askok maite dute Eibar. Eibarko jendea, herriak dituen berezitasunak, bertako herritar langileak, ekintzailak... Sasoi onak eta txarrak bizi izan dituen herria izan da, baina beti egon izan du aurrera.



# Euskara, eibartar guztion hizkuntza

BIDEOA



“...euskaraz eta kitto” bandoak 40 urte bete ditu aste honetan, abenduaren 21ean, eta ezusteko bereziarekin esnatu ginen eguaztenean, etxeetako atarietan itsatsita aurkitu baikenuen “Euskara eibartar guztiona” bandoa. Egun berean aurkeztu zuten Eibarren Akebairen ekimenez egin duten bando berria. 1982an kaleratutako Bandoak euskaraz egitea eskatzen zien euskara zekitenei, ez zekitenek ere hizkuntza erabiltzeko aukera izan zezaten. Horixe izan zen Mikel Larrañaga orduko alkateak helarazi zuen mezua. Erabileraren erronka oraindik gaingiditzeke da, baina hori ere iritsiko da.

**O**raingo errealitatea, ordea, bestelakoa da: munduko beste lurralde askotatik gure artera bizi izatera etorri diren pertsonak ditugu herrian, 70 nazionalitate desberdinetako jendea, beste horrenbeste ama-hizkuntza dituzten herrikideak. Jon Iraola alkatearen hitzetan “gizartea asko aldatu da. Orain geroz eta herrialde gehiagotatik etorritako euskaldun gehiago gara eta, horren ondorioz, gure hizkuntza gero eta pertsona gehiagoren hizkuntza ere bada”.

Horixe da, hain zuzen ere, kaleratu berri den bandoaren mezua: euskara Eibarren bizi diren guztiena dela, dakitenena, ikasten ari direnena, eta ez dakitenena; guztiona da eta guztiok daukagu eragina euskararen biziberritzean. Ezin diogu bizkarra eman gure herriaren hizkuntza-aniztasun aberatsari. Euskara da bata bestearekin konektatuko gaituen eta elkarrengana hurbilduko gaituen haria, integrazioa deitzen den horren tresnarik indartsuena. Akebai-ko Joxe Mari Ulaziak ekitaldia zabaltzeko hitzaldian gogora ekarri ditu Amets Arzalluzek asteburuko finalean bota zuen bertsoak zioena: “Euskaldun bat sor liteke Zumaian edo Goiatzen, euskalduna sor liteke Konakryn edo La Pazzen, euskara da beltzik beltzen euskara da transik transen, gorputz onartu gabe bat mundu berriak asmatzen, ta ibili gabe inori pasaportetik eskatzen”.



MIKEL LARRAÑAGA • Alkate-ohia

# “Euskera mundu digitalian sartzia izango da hurrengo erronka”

1982ko abenduaren 21ian siñatu eban euskaldunak euskera erabiltzia helburu zekan bandua Mikel Larrañagak, orduko alkatiak. Euskeraz jakin arren, eibartar askok gazteleraz egitten ebela ikusitta, hori zelan kanbixau pentsatzen hasi, eta sasoi bateko pregoiak tresna egokixa zirala pentsau eben.



## Nola sortu zan bandua kaleratzeko ideia?

Kalera urtetzen zenduan eta nabaritzen zan euskera ez zala larregi erabiltzen. Andrak, edo gizonak, ume artian, euren artian erderaz, eta umieri euskeraz egitten. Garbi zeguan jente horrek bazakixala euskeraz, baiña ez zebela euskerarik erabiltzen. Hori dala eta, pentsatzen genduan zeozer egin biharra zeguala, eta hori izan zan bandua sortzeko arrazoia. Gero, hortik aurrera, zelan gauzatu hori? Zer egin jendiarengana mezu hori eruateko? Euskeraz ibilli bihar dala, besterik ez. Hori dala eta, egin genduan abenduan zihar hainbat ekintza, hitzaldixak, mahainguruak eta abar, Bernardo Atxaga, Juan San Martin... Orduan be konturatzen giñan hor, pleno aretuan egitten ziran hitzaldi gehixenak, baiña hor esaten zana hor barruan geratzen zan. Hor barruan 200 pertsona baziran, hor barruan geratzen zan mezua. Aiuntamiento batetik ez zeban urtetzen. Eta, urtetzekotan be, neurri txiki batian. Eta horrekin ez genduan botetzen geure helburua, hau da, euskera eibartar baktxari, bere buru barrura, geure mezua eruatia. Nola gauzatu bueltaka, hor izan genduan Bilboko Paradox enpresaren laguntza. Jente kreatibua, oso potentia, eta hainbat eta hainbat billera eurekin izan eta gero, ba, afalondo batian, parrandan, etxera juan ezinda, azkenengo orduan, hor, Txoko-Saioa inguruan, bonbilla bat piztu eta esan genduan: “Kontxo! Hamen tresna aproposena bando bat da, garai bateko banduak.

## Bandua bai, baiña berezixa...

Hortik aurrera, kreatibuak izan ziran asmatu zebenak letra txikixarekin hasi eta haundixarekin bukatu, erderaz hasi eta euskeraz bukatu... Eta hala, gaur dirala 40 urte kaleratu zan bando hau, eta 40 urte pasau eta gero beste bando barri bat agertzen da. Horrek esan nahi dau mantendu egin dala 40 urtian izpiritu eta helburu hura. Eta neurri haundi baten zeueri [...eta kitto!-ri] esker, Fernando Muniozguren eta beste batzueri esker, ...eta kitto! ez da egon ixillik 40 urtian, astero-astero kaleratu egin da. Hori neretzat oso inportantia izan da. Noraiño, ze eragin izan daben banduak... Nik hori ez dot neurtu, ez dakat jakitterik, baiña nik oso impresiño ona daukat.



1982ko alkatea eta 2022koa, bando zahar eta berriarekin. Ekitaldian, euskararen alde lanean diharduten kideekin batera, jatorri ezberdineko herritar talde batek hartu du parte, Eibarren dagoen hizkuntza-aniztasunaren ordezkari gisa. SILBIA HERNANDEZ

### **Oihartzun haundixa euki eban banduak, Eibarren ez eze, hamendik kanpora be.**

Bai, Euskal Herriko aiuntamiento guztietara bialdu genduan, eta handik jasotako erantzuna oso positibo-boa izan zan. Danak zoriontzen, eskerrak emoten... Benetan inportantia izan zan. Eta emoten dau Euskal Herriatik kanpora, beste naziño batzuetan be bueltaka ibilli izan dala.

### **Oin dala 40 urte kaleratu zan bandua eta oin aurkeztu dabena konparatu gero, alderik haundixena bertan agertzen diran hizkuntzen aniztasunian egon leike, ezta?**

Garai hartako gizartia eta gaur egunekua konparautu, ez dake zerikusirik. Gure bandua, "euskeraz eta kito" bandua zeguan bideratuta Eibarko jentiarri, besterik ez. Eta bando honek dakan inportantia da, neretzat, ez dala bakarrik eibartarrentzat eta euskaldunontzat. Lehengua Eibarko euskalduneri euskeraz egin bihar dala esateko zan, eta barri honek Eibarko herritar guztieri esaten detse euskaria erabiltzeko. Kanpotar guztiak gonbidau egitten dittu euskaria erabiltzera. Hor dago, neretako, aldaketa inportantia. Gizartiaren aldaketa, azken fiñean.

### **Euskaria gehixago erabiltzia lortu nahi zan, eta 40 urte pasau eta gero hamen segitzen dogu, burruketan. Zelan ikusten dozu euskaria gaur egun?**

Nik uste dot hobera egin dabela. Etxe-barruan billoekin, eta inguruan daguaz beste umiekin ikusten

dotena zera da: ume bat, famelixa euskaldun batian jaixotzen dana, beran lehelengo urtiak euskera hutsian egitten dittu, aillegatzen da ikastolara askotan erderia ezagutu barik. Poliki-poliki beran mundura juaten dira sartzen erderia, inglesa eta bihar diranak, hori hala izan bihar da. Baiña aillegatzen da momentu bat, umiak sartzen diranian mundu digitalian, euskeriak atzera egin eta erderiak euskerian lekua hartzen dabena. Eta, nahiz eta ikastolako umiak izan, famelixa euskaldun bateko umiak izan, bizitza osuan euskeraz ibilli, momentu horretatik aurrera erderia nagusi da. Pentsatzen dot hor daguala hurrengo aldarrikapena edo erronka. Azkenian da euskaria mundu digitalian sartzia, bestela honek umiok jua egingo jakuz. Dana dala, ez neuke nahi azken mezu ezezkor, negatibo bat emon. Ze, kontuak etara, guk, gerra ostekuok ezagutu dittuguzen oztopuak, eta horrek danok gainditu egin izan dittugu. Begira, Eibarren Ez Dok Amairu taldia ekarri genduala 55 bat urte izango dira. Arrateko Kulturalak, ni han nenguan, batzordian, eta Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi eta abar etorri ziran. Kantaldi hori Teatro Amayan egin zan eta, baimena lortzeko, Gobernu Zibillera jua bihar giñan, abesti guztien letria eruan, itzuli, eta horrekin baimena emoten zeskuen. Horren gaiñetik pasau bagiñan, eta gagozen momentura iritsi bagara, 40 urte barru ni seguru nago aurrerapen haundixagua egingo dogula.



JESUS GUTIERREZ

## ...eta kitto!-ko urteko Kirol Gala

Gogoan dut 1995ean Iñaki Ugarteburu eta ni neu ...eta kitto!-ko arduradunekin bildu ginela Eibarko kirolaren lehenengo Gala antolatzeko. Herrian praktikatzen ziren kirol mota guztiak euren tokia izango luketen ideia barneratzailearekin sortu zen proiektua. Kirol modalitate bakoitzean aukeratutako kirolariak errekonozimendua jasotzeko asmoarekin. Ez ziren bakarrik kirol merituak saritzen; izan ere, behin baino gehiagotan aukeratutakoak Eibarko kirolean egindako ibilbidea hartu zen kontuan, zuzendari edo entrenatzaile lanetan egindako lana... Gainera, egindako ibilbidea kontuan hartuko zuen sari berezia ere ezarri zen, eta baita euskera bultzatzeko konpromisoa sarituko lukeen beste bat ere.

Proiektu xumea zena urteen poderioz finkatutako tradizioa bilakatu da. Abenduaren 31 guztietan Eibarko kirolaren familia urtea agurtzeko biltzen da, herriko kirol modalitate guztiak elkarrekin partekatzen duten ekitaldi bakarrean: berdin dio bakoitzak zenbat kirolari dituen, zenbatekoa den aurrekontua... Herriak bizi duen kirolaren jaia da.

Baina badira bestelakoak ere. Unea izan daitekeelako ekitaldia zelan hobetu gogoeta egiteko. Dinamikoagoa eta erakargarriagoa egiteko modu onena pentsatu, kirolean erreferentia izan daitekeen bateren baten parte-hartzea baloratu, herriko kirolean urte guztian izan diren irudi onenak tartekatu, herritarren bozak sartu hainbat arlotan, herriko kirol entitateei laguntzen dieten babesleen lana errekonozidu... Lerro horiei jarraitzen dieten hainbat eredu badira, oso urrutira joan barik ere egiten direlako antzerako ekitaldi arrakastatsuak. Eibarko Galak, nire eritziz, hobetu daitekeen ereduari jarraitzen dio. 1995ean erreferentia zenak ez du nahikoa eboluzionatu eta, orain dela 25 urteko eskema jarraitu badaiteke ere, gure herriko kirola bera ere 90. hamarkadako erdialdekoaren ondoan oso ezberdina da. Pentsatu dezagun zertan hobetu daitekeen.

**“Unea izan  
daitekeelako  
ekitaldia zelan  
hobetu gogoeta  
egiteko”**

# Urkora igotzea, urtea hasteko proposena

Euskal Herrian nahiko zabaldua dagoen ohiturari jarraitzen diogu gurean ere eta, horrela, asko dira Urte Berriko lehen egunean herriko punturik gorenera igotzeko nahiari jarraitzen diotenak, baita gaupasa erdi egin dutenen artean ere. Baina badira baita, egun horri itxoiten egon barik, urtean zehar Urko gainean hainbat aldiz egon direnak ere. Lerro hauetan dituzue horietako biren kasuak. Hurrengo bi orrialdeetan, bestalde, aurrekoan aurkeztu zen "EHko 200 Mendi Ederrenak" proiektuan Urkori egindako tartea duzue.

## Josean Urkiak 100etik 150erako jauzia Urkon

Iaz aurretik ezer planifikatu barik sasoi honetarako Urkora 100 aldiz igo bazuen Josean Urkia eibartarrak, oraingoan dagoeneko 150 bider izan da gure herriko mendipuntan. Oraingoan marka hori egiteko asmoa ere bazuen Urteberri egunean lehenengo aldiz Urko tontorra zapaldu zuenean; eta lortu ere lortu zuen, noiz eta egun seinalatuan, abenduaren 3an, Euskal Herriaren Egunean. Okasioa ere ondo baliatu zuen Joseanek lagun eta anaian artean lortutakoa alaitasun giroan ospatzeko. Urkiak dioenez, "iaz, pandemia-egoeran geundela-eta, errazagoa egin zitzaidan 100 igoera egitea; aurten gehiago saiatu behar izan naiz marka berria lortzeko". Egun horretan eurekin igo zuen baita zazpi urteko Leok ere, Urkora bere lehenengo igoeran. Behin zaletasuna piztuta, Urkok bisitariak izaten jarraituko du aurrerantzean ere.



## Mikel Arriola zazpi aldiz jarraian igo da Urkora

Gogor entrenatzea gustatzen zaion Mikel Arriolak ere "kariño" berezia dio Urkori eta, zer bururatu? Ba Urkora jarraian zazpi aldiz igotzea. Abenduaren 8an egin zuen balentria, horretarako 6 ordu eta 20 minutu erabilia. 44 kilometro pasa egin zituen guztira eta, ibilbide horretan, 4.708 metroko desnibel positiboa gainditu zuen. Honezkeroko 100 aldiak atzean laga zituen aspaldi eta zapatuan 200. igoera egiteko asmoa du eibartarrak. Argazkian ikusi dezakezuen txakurra batzuetan lagun izan badu ere, "gehinetan bakarrik" joaten dela diosku. Gorputzari egurra ematea gustatzen zaio Mikeli eta Urko neurrikoa da, "gogortasuna ere baduelako". Jakina, gertutasunak ere bere tokia izan du bien arteko harremanean: "Hurbilen dut eta joan eta etorri, besterik ez dut behar edozein momentutan ekiteko". Urko polita iruditzen zaion galdetuta, "bista onak behintzat" badituela dio, eta inguruan gozatzeko gauza asko ere bai. Urtarrilaren Iean, Urte Berriarekin, igoko duen oraindik ez du erabaki, "egun horretako egoeraren arabera", baina euren arteko harreman estua hor izango da aurrerantzean ere.



# Mendietako talaiia ederrak

**K**lub Deportiboko Krabelin mendi taldekoek joan zen astean aurkeztu zuten “200 Mendi Ederrenak” lanean mendi bakoitzaren 10-15 argazki, ibilbidearen deskripzioa, fitxa osotua, mapa eta perfilarekin, jendeak ikusteko track-a eta, hori guztia gutxi balitz, non bazkaldu eta zein prezioan ere jakin dezakete interesatuek. Lan handia egin dute azken urteotan proiektu horretan jardun duten mendizaleek: lehenengo 100 Mendiena 2014tik 2017ra arte osatu zuten eta beste 100 Mendiena 2018tik 2022ra arte, guztira 200ena osatzeko. Mendiak berrehun izanda ere, “tarte horretan beste 463 tontor gehiago” zapaldu zutela diote asmoaren buru izan diren Andoni Zendoia eta Julian Etxeberriak. Egun bakoitzean, “bataz beste, hiru tontor” igo dituzte; eta bataz besteko kontuekin jarraitzeko, “irteera bakoitzean 13 kilometro egin eta 865 metroko desnibela gainditu dugu, lau ordu eta laurdeneko denboran”. Hasiera ere hiru laguneko kontua izan zen, azkenean 20 laguneko taldea osatzeraino, “jendea jubilatzen joan den neurrian”; horrekin ere

eguneroko txango bakoitzean, “bataz beste bederatziguztira, 2.626 kilometroko distantzia kubritzeko. Eta Euskal Herriko mendiekin batera, badira mugetatik kanpoko batzuk ere, “horren gertu egonda, egiteko aprobetxatu ditugunak”: hor dira Errioxa, Burgos eta Huescan kokatutako batzuk, Petrechema, Acherito eta halakoekin.

Egindako lanaren adibide modura, Urte Berri egunean eibartarron ohitura den Urkora igotzea kontuan izanda, Krabelinekoek mendi horren inguruan egindako fitxa ekartzen dizuegu. Lehen 100 Mendiei amaiera emateko berori egitea erabaki zuten egunekoak:

## **Ermua-Artarrai-Urko-Akondia-Aizketa-Arrate**

*Trena hartu dugu goizeko 9etan Eibartik Ermura joateko, eta geltokitik bertatik hasi gara oinez (9:13), gorantz, ambulatorio aldera doan errepidetik; laster (9:20) gure ezkerrean ikusten dugun bidezidor batek abiatuko gara, aldapa pikoak Artarraira (406 m) (9:40) garamatzala. Bere buzoi berezia bidezidorretik*



Deportiboko Mendi Batzordekoen azken irteeran parte hartu zutenek bazkari batekin agurtu zuten denboraldia Deban.



2017ko azaroaren 16an osatu zuten Krabelin taldekoek lehenengo "EHko 100 Mendi Ederrenak" Urko igoera eginez.

*metro batzuk eskumara gelditzen da. Igoerekin jarraituz pista batera iritsi gara eta, gora eginez, Elorreta Goikoa baserrira hurbildu, hau ezkerrean utzi eta lurrezko pistatik altura hartzen segitzen dugu; honek laster ezkerretara egiten du eta, pista hau utzi gabe, Urrestiko (10:25) lepora ailegatu gara. Mendi gandorrean gaude, eskumara hartu eta, bidezidorra utzi gabe, Urkoko (795 m) (10:45) tontorrera heldu gara. Eguraldi oso garbia daukagu eta Gipuzkoako eta Bizkaiko mendi nagusiak gure aurrean ikus ditzakegu. Jaisteko, Eibar aldera doan bidea hartu dugu (Hego) ezkerrean jotzeko eta, Ixuako norabidea erakusten duen karteltxo bati kasu eginez, lagatzen dugu (11:00), langatxo bat pasatuz. Bideak Ixuako mendatera garamatza eta, hau gurutzatuz, errepide batek Usartzara igotzen gaitu; horiturria eta mahai batzuk dauzkagu. Gunea pasa eta berehala bidegurutzte batean gaude; ezkerretara doan pista hartu eta 20 bat metro aurrerago, gure eskuman, pinudi batean gorantz egiten duen bidezidorra hartuko dugu Akondiako (749 m) (11:55) tontorretaino.*

*Arrate aldera doan mendi bizkarretik (Ekialde) abiatu gara eta, bera galde gabe, belardietatik zehar, pista bat gurutzatu ondoren, Aizketako (709 m) (12:10) buzoian gaude. Norabideari eutsiz, bidezidorrak pista batera jaitsi gaitu eta honek, dakargun norabidea aldatu barik, Arraterantz garamatzen errepidera; bertan gara 12:40ean.*

## Urko mendiarekin amaitu zuten Krabelinekoek Euskal Herriko 100 mendiko lehen zerrenda; orduetik beste 100 bildu dituzte

*Orain dela ia lau urte Euskal Herriko 100 mendiko zerrenda bat betetzea helburu jarri genien gure buruei eta Urko mendiarekin bete dugu zerrenda hori; hori dela-eta, bazkari berezi batekin ospatzera goaz "Tiro Pichón" jatetxean. Bazkaldu ondoren, Kantabria jatetxe ondotik beherantz hasten den Orbeiko pistatik jaitsi gara Eibarrera. 1:15 ordu barru Klub Deportiboko atarian gaude.*

### Urteko azken irteera, Aittolattik Debara

Bestalde, aurreko zapatuan Deporrek Mendi Taldeak urteko bere azken ibilaldia egin zuen. Aittolan hasi eta Debaraino joan ziren, bidean Lizarretatik pasatuta. Ibilaldi horrekin, gainera, "gure ingurunean egindako sei etapako itzulia" amaitu zuten. Oso eguraldi ona lagun zutela, 36 mendizaleen taldeak 16,6 kilometroko txangoa osatu zuen Deba bailara hobeto ezagutuz: "Saltsa Mendi, Andutz, Lizarretako tontorrera igo eta handik itsasoko bistekin gozatzeko...". Tradizioari jarraituz, bazkari eder batekin amaitu zuten ibilaldia.

## Eibar FT-ko lehen taldeek igoera postuetan amaituko dute urtea

Emakumezkoen lehen taldeak, Cordoban 0-1 irabazita, berriro lidergoa eskuratu du Federazioko 1. Mailan. Hori bai, gertutik jarraitzen dio Deportivo, Cacereñok eta Osasunak osatutako hirukoteak, puntu bakarrera. Gizonezkoen lehen taldeak, bestalde, lider postua galdu du Levanterekin berdindu ondoren, eta orain Las Palmas du aurretik, puntu bakarrera, eta Levante atzetik. Bestalde, SD Eibarren gizonezkoen eta emakumezkoen lehen taldeen poster ofizialak, 2022-2023 denboraldiari dagozkionak, jasotzeko moduan daude Orsaixan-Ipuruan, Premier Bidaiak-en eta Askasibar kirol dendan. Gizonezkoen posterak Mendebaleko harmaila du atzean, eta Ipuruako 75. urteurrenari erreferentzia egiten dio, aurren ospatu baita. Emakumezkoen posteraren irudia Ipuruako Anexo zelaian dago.



## Majadahondari irabazita, Eibar Rugbyk taula erdian hartuko ditu oporrak

Eibar Rugbyko emakumezkoen talde nagusiak ondo ikasi du garaipenen bidea eta, lehenengoa eskuratzeko zaila egin bazitzaion ere, jarraian irabazi ditu azken hiru partiduak. Aurreko domekan, gainera, Majadahonda bigarren sailkatuari nagusitu zitzaion Cristina Guntinen taldea. Unben jokatuak partiduen amaieran markagailuak etxezkoen aldeko 15-10ekoa erakusten zuten. Bigarren faseko lehen partidu horretan eibartarrek hasieratik izan zuten entseguak egiteko aukera,

baina 34. minutura arte ez zen iritsi lehenengoa, Rianna Aspinall-ek gauzatu. Madrildarrek partidua berdintzea lortu bazuten ere 45. minutuan, eibartarrek beste bi entsegu ziurtatu eta egitea lortu zuten (kasu bietan bigarren lerroko Aumuaeren eskutik), eta Majadahondak aldea murriztearekin konformatu behar izan zuen luzapeneko minutuetan. Urtarrilaren 15ean Sevillako La Cartujan izango dute hurrengo erronka, Cortevas Cocos-i egingo dioten bisitan.

## Binakako Txapelketako partiduak hartuko ditu Astelenak domekan

Txapelketa nagusiko bosgarren jardunaldiko Altuna-Tolosa eta Peña-Mariezkurrena bikoteen artekoa

izango da hilaren 25ean, domekan, Astelena frontoiak hartuko duen jaialdiko partidu nagusia. Aurretik

pisuzko norgehiagokaz gozatze-ko aukera ere izango da: hor Aspe enpresako Elezkano-Gaskue eta Irribarria-Bikuña bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Azkenik, binakako promozio txapelketako partiduan, Egiguren eta Erostarbe izango dira alde batetik eta Zubizarreta eta Elizegi bestetik.

Aspe enpresak kudeatzen dituen profesionalen arteko jaialdietan Astelenak indar handia hartzen du sasoi honetan, Gabon bueltan lehen mailako partidu eta konbinazioaz gozatze-ko aukera eskainiz.





## Deportiboko 30 bat atleta Bolunburu Memorialaren 71. edizioan

Aurreko domekan Eibarko Klub Deportiboak antolatutako Bolunburu Memoriala krosa jokatu zen, federatuen mailako Gipuzkoako Txapelketak jokoan zirela. Probak zortzi lasterketa hartu zituen guztira, lau federatu mailan eta beste lau eskolarretan. Senior mailan Unai Arroyo eta Ainhoa Sanz izan ziren lehenak helmugan eta, eurekin, Ibai Larrea eta Ander Sagarzazuk osatu zuten podiuma gizonaekoetan eta Lara Estebanez eta Ainhoa Unanue Goierri Garaiaiko taldekideak izan zituen lagun Sanzek emakumezkoetan. Talde hori izan zen nagusi bi mailatan. Bestalde, gure herriko ordezkariak dagokienez, Jone



Jone Acuña bere mailako sariarekin.

Acuña 20 urtetik azpiko mailako lasterketa irabazi zuen, Eneritz Trebolazabala laugarren izan zen 18 urtetik azpikoetan, Roberto Gartzia bosgarren izan zen masterretan eta Ugaitz Gartzia bere semea seigarren 16 urtetik beherakoetan.

Hori bai, Eibarko adin guztietako atletekin batera Euskal Herriko atleta asko izan genituen lasterketan. Aipatutakoez gain, Klub Deportiboko Manex Gisasolak (16. postua), Oihan Lopezek (22) eta Alaitz Sanzek (25) hartu zuten parte 16 urtetik azpiko mailan, eskolarretan parte hartu zuten 21 atleta ahaztu barik: 14 alebinetan eta beste zazpi infantiletan.

## Mikel Zabalak hiru urterako luzatu du Bidasoarekin kontratua

2018tik Asobal Ligako Bidasoarekin jokatzeko duen hegaleko jokalaririk eibartarrak 2023ra arte zuen kontratua 2026ra arte luzatu du, Irungo taldean oso ondo dagoela erakutsiz. Orain arte Bidasoa Kirol Klubean daramatzan lau denboralditan 174 partidu ofizial jokatu ditu Zabalak eta 343 gol sartu. Aurretik Euskadiko selekzioan eta gazte mailako Espainiako selekzioetan ere jokatu izan du Zabalak.



## Asier Gomez igerilariak Euskal Herriko distantzia luzeko txapela jantzi du

Eibar Igerixan-eko ordezkariak Lasarte-Orian jokatuako distantzia luzeko Euskal Herriko txapela irabazi zuen 3.000 metroko distantzian jokatuako norgehiagokan. Bere denbora 36 minutu, 23 segundo eta 35 ehunenekoa izan zen.

Bestalde, Ipuruako igerilekuan lehenengo aldiz jokatuako Gipuzkoako Master Txapelketan, Eibar Igerixaneko ordezkariak bikain jardun zuten, hainbat podium eskuratzeko. Txapelketaren bosgarren edizioa izan zen jokoan.

MARI DOMINGI eta OLENTZERO

# “Eibartarrak nahiko zintzoak izan zarete”

Bihar gauean bisita berezia jasoko dugu etxean. Urtero bezala, Mari Domingi eta Olentzero opariak banatzen ibiliko dira eta goizean, esnatzen garenean, korrika batean joango gara bikoteak laga diguna zabaltzera. Lasai, gutxi falta da eta!



**U**rtebetez elkar ikusi barik egon ondoren, Mari Domingi eta Olentzero herriko eskoletan egon dira aste honetan zehar. Umeek ilusio handiz hartu du bikotearen bisita eta euren desiren berri eman diete. Biharkoa egun luzea izango da Mari Domingi eta Olentzerorentzat, baina irrikitan daude eibartarrak zorionez betetzeko. Goizean, adibidez, kalejira hasiko dute Urkizutik 11:30ean eta ibilbide hau egingo dute: Arragueta-Coliseo, Errebal-Anbulatorioa-Toribio Etxebarria-Untzaga. Gainera, Juan Bautista Gisasola musika eskolako ikasleen, Adolfo Jainagaren ikasleen, Eibarko Kantuzaleen eta Kaleetan Kantuz taldekoen laguntza jasoko dute bidean. Gero, 12:30ean, Mari Domingi eta Olentzero udaletxean egongo dira umeekin eta azken eskutitzak jasoko dituzte.

**ETA KITTO: Mari Domingi eta Olentzero, aspaldiko! Zer moduz ibili zarete urtean zehar?**

**OLENTZERO:** Oso ondo, betiko moduan! Zuek, jende normalak, uda inguruan edukitzen dituzue oporrak eta guk urtarrila-otsaila inguruan, baina gero berriz jartzen gara lanean buru-belarri.

**MARI DOMINGI:** Eta orain dator guretzat lan asko egiteko sasoa!

**EK: Herriko eskoletan egoteko aukera izan duzue. Nolako harrera jaso duzue?**

**OLENTZERO:** Oso oso ona!

**MARI DOMINGI:** Gainera, ume batzuek ez gintuzten ezagutzen eta oso berezia izan da!

**OLENTZERO:** Txikienentzat lehen aldia izan da gurekin eta azaldu diegu euren etxeetan agertzen diren opariak guk eramaten ditugula.

**MARI DOMINGI:** Hasieran nahiko urduri zeuden, baina gero hurbildu egin dira eta besarkatu egin gaituzte.

**EK: Orain zapatutik domekarako gauean zer ekarriko diezuen zain egongo dira.**

**OLENTZERO:** Bai. Ondo azaldu diegu lotan egon beharko direla, ze bestela agian beldurtu egingo gara eta ez gara etxean sartuko. Beraz, goiz joan lotara eta goiz altxatu.

**MARI DOMINGI:** Gainera, umei esan diegu polborioak gustatzen zaizkigula eta, esne pixka bat lagatzen badigute, hobeto. Ah, eta katilu bat ur Pantxika astoarentzat, lan asko egiten duelako.

**EK: Gau luzea izaten da zuentzat, lan handia egiten duzue, baina etxe guztietara heltzen zarete, ezta?**

**MARI DOMINGI:** Bai, noski! Inor ez dadila estutu horregatik.

**EK: Nola portatu gara eibartarrok urtean zehar?**

**OLENTZERO:** Nahiko zintzoak izan zarete, nahiz eta ezagutzen ditudan batzuk ez diren batere zintzoak izan. Baina tira, ez dut hemen euren izena esango.



Mari Domingi eta Olentzero herriko eskoletan egon dira azken egunotan. EKHI BELAR



**MARI DOMINGI:** Beste batzuek lan asko egin dute urte osoan.

**OLENTZERO:** Ume batzuek abesten, dantzatzen eta mila gauza egiten ikasi dute. Askok idazteko orduan letra hobetu egin dutela esan digute.

**EK:** Hori garrantzitsua da zuei bidalitako eskutitzak ondo ulertzeko!

**OLENTZERO:** Lasai egon daitezela, letra guztiak ulertzeko gai gara eta.

**EK:** Eskutitz asko jaso dituzue dagoeneko?

**OLENTZERO:** Buzoia kartaz beterik dugu. Galtzagorriek lagundu egiten digute, baina eskutitz guztiak irakurtzea gustatzen zaigu, Galtzagorriak nahiko bihurriak direlako.

**EK:** Izan ere, umeentzat dena ez da eskatzea bakarrik, ziur eskutitzetan zuentzako hitz politikak ere jartzen dituztela, ezta?

**MARI DOMINGI:** Baaai! Eta batzuek marrazkiak ere egiten dizkigute.

**OLENTZERO:** Ume batzuek gurasoentzako, anai-arrebentzako edo beste familiarrentzako gauzak eskatzen dituzte, edo euren gelakideentzat!

**MARI DOMINGI:** Batzuek esan digute errotulagai-luak eskatu dituztela gelakideentzat.

**EK:** Oraindik badute eskutitzak idazteko denbora, bihar kalejiran ibiliko baitzarete. Gogoz kalera irteteko?

**“Umeei esan diegu guri polboroiak eta esnea lagatzeko, eta ura Pantxikarentzat”**

**“Buzoia kartaz beterik dugu, baina eskutitz guztiak irakurtzea gustatzen zaigu”**

**OLENTZERO:** Bai! Guk biok irtengo gara, Pantxikarekin, baina ikusiko duzue pixka bat modernizatu egin garela. Adi egon behar zarete eta prest, goxokiak inoiz baino gogo gehiagorekin banatuko baititugu. Bi urte egon gara kalejira egin barik eta praktikatzeko aprobeztatu dugu denbora hau.

**EK:** Bi urte eta gero, gogotsu egongo zarete herritarrik ikusteko, ezta?

**OLENTZERO:** Bai, eta gerria mugitzeko ere.

**MARI DOMINGI:** Umeekin egoteko gogo handia dugu!



## Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa urtarriletik aurrera

Arrate Kultur Elkarteak oinarrizko argazkilaritza ikastaroa antolatu du datorren urtearen hasierarako. Irakaslea Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kidea izango da. Klaseak urtarrilaren 16tik otsailaren 1era bitartean izango dira, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara. Otsailaren 4an, berriz, ikasitakoa praktikan ipintzeko irteera egingo du taldeak. Ikastaroak 30 euro balio du Arrate Kultur Elkarteko bazkideentzat, eta 35 euro bazkide ez direnentzat. Izena emateko 638284912 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



## Koadroak nola margotu ikasteko saio praktikoak

Aire Zabaleko pintura lehiaketa ugaritan saria jaso duen Esteban Orozek koadro bat nola margotu behar den azaltzeko bi saio eskainiko ditu urtarrilean, Portalean (3. solairuan). Eibarko Artisten Elkarteko kideak koadro bat margotuko du jendaurrean, horrela berak erabiltzen duen teknika azaltzen joateko. Asmoa koadroa egin ahal izateko pauso egokiak zeintzuk diren azaltzea da. Urtarrilaren 10ean eta 12an eskainiko ditu saioak, 18:30etik 20:00etara.



## Disko berria aurkezteko kontzertua gaur iluntzean

Gaur 20:30ean Coliseo antzokian eskainiko duen kontzertuan aurkeztuko du disko berria Trio Medianoche taldeak. Pedro Bartrak (lehen ahotsa eta bigarren gitarra), Jesus Mari Bastidak (hirugarren gitarra, hirugarren ahotsa eta marakak) eta Bernardo Aguilera (bigarren ahotsa eta lehen gitarra) osatutako hirukoteak Legarreko estudioetan egin du grabazioa, Walter Tuzzeorekin. Udalaren laguntzarekin kaleratu duten diskoan sei abesti berri daude, aurretik jo izan dituzten beste bost abestirekin batera eta, ohiko bidetik, doinu latinoamerikarrak dira nagusi. Taldearen hirugarren diskoa dena zuzenean entzuteko aukera izango da gaurko kontzertuan eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Bestalde, diskoa Coliseon bertan egongo da salgai gaur eta datozen egunetan, berriz, Untzagan erosi ahal izango da.



## Bi erakusketa ikus daitezke aldi berean Portalean

Bi erakusketa ikus daitezke egunotan Portalean: "Auzoko dendak", Klub Deportiboko Argazki Taldearen erakusketa kolektiboa urtarrilaren 8ra arte egongo da ikusgai eta Jenni Alvaradoren "Keinu, objektu, trazu" izenburukoa, berriz, urtarrilaren 15era arte.



## “Munduari itzulia 80 egunetan” antzezlan berria

Julio Vernerren liburuan oinarrituta dagoen “Munduari itzulia 80 egunetan” izenburuko antzezlan berria aurkeztuko du Glu Glu konpainiak datorren astean Coliseon. Familia osoarentzako lan honetan abenturaz betetako istorioa kontatuko dute, era komiko eta musikalean antzeztua: “Phileas Fogg-en eta haren morroi Passepartout-en gorabeherak kontatzen dituen liburu ospetsuaren egokitzapen honetan, gure herri-tik atera gabe mundu osoko jendearekin bizi gaitzkeela frogatu nahi da, bai eskolan, bai gure kale, auzo eta parkeetan”. Ugaitz Alegriaren zuzendaritzapean, Andrea Covadonga eibartarra, Jon Casamayor, Sara Barroeta eta Leire Ormazabal arituko dira oholztan. Sarrerak 5 euro balio du.



## Bea Egizabalen “Magma mia!” umorezko bakarrizketa

Arrate Kultur Elkarteak, Nalua talde feministarekin batera, umorezko bakarrizketa antolatu du gaurko, 18:00etan Topalekuan. Bea Egizabalek “Magma mia!” lana eskainiko du eta, berak dioenez, “patriarkatuak gure bizitzak egunerokotasunean nola zeharkatzen dituen landu nahi izan dut umoretik”. Ekimena irekia, euskaraz eta borondatearen truke izango da.



## Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua

Usartza Txistulari Bandak Gabonetako kontzertua emango du Untzagan bihar, 11:30ean, Olentzerori ongietorria egiteko. Txistulariekin batera Unai Cabanzón eta Danel Montero (tronpetak), Iñaki Orbe-gozo (tronpa), Markel Uribarren (tronboia), Jesús Rioja (tuba), Isabel Laspiur (pianoa), Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolako txistu ikasleak eta Sostoa abesbatza arituko dira, Enrique Montero zuzenduta.

## Go!azen 9.0 kontzerturako sarrerak saltzen hasi dira

Urtarrilaren 14an izango da Go!azen 9.0 kontzertua Coliseo antzokian. Bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan eta 19:00etan, eta sarrerak aste honetan ipini dituzte salgai, Kutxabank bidez zein antzokiko leihatilan (10 euro, 7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Aurten Saioa, Gontzal eta Alain izango dira Basakabiko ikasle berriak, eta haietako batek sekretu bat gordetzen du.

## J.D. Arrateren erakusketa



Manix laguntalde edo peñak antolatuta, Juventud Deportiva Arrate taldeari buruz egindako erakusketak izan duen harrera ona ikusita, urtarrilaren 8ra arte ikusteko moduan lagatzea erabaki

dute. Untzagako jubilatutako bitatu daitezke. Bestalde, ikusgai dauden argazkiak digitalizatzeko asmoa dutenez, baten bat nahi izanez gero, eskatzeko aukera dago, erakusketa aretoan dagoen koadernoan idatzita. Eta norbaitek sasoi horretako argazkiren bat badauka, lagatzea eskertuko lukete.

### ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			7	6	8		
8			1		2		
	6	3		8	7		
			7	5			
7	9					3	5
			1	6			
		6	4		5	7	
	7		2				4
1	8	7					

1	2	3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	32	33	34	35	36

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

### ZERTXOBAIT ZAILAGOA

3				6	7		
			1		6	5	
4	7						
	7	3			9		
			6	5	2		
			3			4	2
						2	3
	3	1			5		
		6	9				8

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	32	33	34	35	36

## POEMA PRESOA

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalaxe- eta Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu

Arroka	1	A	2	3	4	A
Jipoitu	E	5	6	R	7	U
Belarri-luze txikia	U	N	T	8	9	A
Harrera	A	10	11	12	13	A
Zauri gaiztotuari dario	Z	14	R	15	E	16
Familiako	A	17	18	I	D	E
Urtia eta berendiaren laguna	S	A	19	20	21	22
Toreroaren etsaia	23	E	Z	24	25	A
Besa-behi	B	E	26	I	27	28
Zahagi txikia	Z	29	30	A	T	31

Eskoba hegalariaen jabe	S	O	32	G	33	N
Zikoitza, esku-eutsia	Z	E	34	K	35	N
Toki batetik bestera aldatu	M	U	37	38	39	U
Ehun urtekoa	M	40	41	42	E	A
Mahats-zuku irakin gabea	M	43	Z	44	I	O
Salmentako partaide	B	45	Z	E	R	46
Hondakin	H	O	47	D	48	R
Aintzira txikia	U	R	49	A	50	L
Adar-gai	A	51	A	R	K	52
Diru-etxea	B	A	N	53	54	55

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29				
30	31	32	33	E <sup>34</sup>	K <sup>35</sup>	E <sup>36</sup>	37	38	39	40	41		42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55							

# Abenduak 23/29

## BARIXAKUA 23

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### BAKARRIZKETA

**16:00** Bea Egizabalen "Magma Mia!" umorezko bakarriketa. Euskeraz. Topalekua.



### MUSIKA

**20:30** Trio Medianoche, disko berria aurkezten. Coliseo.



## ZAPATUA 24

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### MUSIKA

**11:30** Gabonetako kontzertua. Usartza txistulari taldea, J.B. Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleak eta abesbatza, pianoa, perkusioa eta metal boskotea. Untzaga.

### OLENTZERO

**11:30** Zatoz Olentzerorekin abestera. Kantu-kalejira, Urkizutik Untzagara. **12:30** Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.



## DOMEKA 25

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

## ASTELEHENA 26

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30**

2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### IZOTZ PISTA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00**

Patinatzeko izotz pista. Errebal Plaza.

## MARTITZENA 27

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30**

2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### IZOTZ PISTA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00**

Patinatzeko izotz pista. Errebal Plaza.

### ANTZERKIA

**17:00** "Munduari itzulia 80 egunetan" (Glu Glu). Coliseo

### BERTSOAK

**19:00** Igor Galartza, Oihana Iguaran eta Aner Peritz bertsolariak. Gai-jartzailea: Maialen Bergara. Ez Dok ZaiZoi.



## EGUAZTENA 28

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30**

2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

## EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### IZOTZ PISTA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00**

Patinatzeko izotz pista. Errebal Plaza.

## EGUENA 29

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30**

2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

### EIBART

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30**

Gabonetako 18. Artisautza Azoka.. Untzaga.

### IZOTZ PISTA

**11:00/14:00 eta 17:00/21:00**

Patinatzeko izotz pista. Errebal Plaza.

## ERAKUSKETAK

**Urtarrilaren 8ra arte:**

- "J.D. ARRATE". (Untzagako jubilatue txea).  
- "AUZOKO DENDAK". Klub Deportiboko Argazki Taldea. (Portalea).

**Urtarrilaren 15era arte:**

- "Keinu, objektu, trazu". JENNI ALVARADOren margoak (Portalea).

**Otsailaren 19ra arte:**

- "Artea eta arkitektura Eibarren II". MANUEL ZABALAREN maketak (Armagintzaren Museoa).

**Martxoaren 19ra arte:**

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Museoa).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **26an: 20:30**
- **28an: 19:00**
- **28an: 19:00**

### “Suro”

Zuzendaria: Mikel Gurrea



**THRILLER.** Nekazal munduan girotutako drama. Bikote batek bizitza berri bat haserakoan sortutako frikzioaren inguruan..

## 2 ARETOA

- **26an: 20:30** (Antzokia)
- **27an: 19:00** (1 Aretoa)
- **28an: 19:00**
- **28an: 19:00**

### “Mundo extraño”

Zuzendaria: Don Hall



**FANTASTIKOA.** Abenturaketa zientzia-fikziozko komedia, familia osoarentzat egokia.. Animaziozko pertsonaiekin.

## ANTZOKIA

- **26an: 20:30** (2 Aretoa)
- **27an: 19:00** (2 Aretoa)
- **28an: 19:00**
- **28an: 19:00**

### “Avatar. Sentido del agua”

Zuzendaria: James Cameron



**FANTASTIKOA.** Zientzia-fikzioa eta abenturak nahasten ditu, extralurtarren istorioekin. Aurreko baten sekuela, 3D-n.



<p>*** <b>FUNEUSKADI</b> Single business</p>	<p>*** <b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeraria</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**688 62 76 89**  
**ESKERTZAK ETA**  
**URTEURRENAK**  
**943 20 09 18**

Urkizu, 11  
 publicitatea@etakitto.eus



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NORA!** Martitzenian 6 urte egin zenduazena eta!! Milla patxo famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **LEA!!!** Hillaren 18xan 4 urtetxo bete dittu gure etxeko printzesak. Musu haundi bat Jon eta etxekuen partez.



Zorionak, **MADDI!** 19xan 8 urte bete zenduazena eta. Patxo eder bat famelixa guztiaren partez. Segi irrifar polit horrekin.



Zorionak, **BITTOR,** maitagarrixori! Hillaren 28xan 7 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna. Patxo asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAREN,** hillaren 24an 11 urte beteko dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Noraren partez.



Zorionak, **JON.** Hillaren 22xan 4 urte beteko dozuz-eta. Laztan bat famelixaren eta, batez be, Oier zure anaixaren partez!



## Jose Antonio Larrea Alberdi

**1. URTEURRENA**  
2021/12/10

**“Gure bihotzian betirako eramango zaittugu”**

- ETXEKOAK -



## Jose Angel Kerr Castellanos

Kuba utzi ta etorri zinen  
Katu-Kaleren kantxara  
Jose, zurekin zenbat momentu  
Zenbat barre ta algara.  
Ondoren talde osoa joan zen  
Zure eskutik Kubara  
Handik itzuli ginen partiduik  
Geldu gabe eta, hara!  
Gaur guk zu galdu zaittugu eta  
Merezi dezun erara  
Gure taldean eta bihotzetan  
Betiko egongo zara.

**- KATU KALE SASKIBALOIKO LAGUNAK -**



# Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Ilogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasqueta kalean. Itxita. 639728126.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai erdigunetik gertu. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin), 634430647.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 642604285.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta ospitalean ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 722408667.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 633173215.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta umeak eskolara eramateko. 688779828.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 633694917.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldean laguntzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda). 643427770.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624108612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624356807.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia sukalde-laguntzaile jardunean. 643508332.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta zaintza lanetarako. Orduka. 643508300.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 612583671.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-

tzeko eta garbiketarako egiteko. 632029884.

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta lorategian jarduteko. Gidatzeko karnetarekin. 624127147.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan taberna edo jatetxeetan lan egiteko eta nagusiak zainzteko. 632419944.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 687114707.

### 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. 661955980.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

# Berdintasunaren bitartez *ekiditen dugu desberdintasuna.*

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordioen bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

Etorkizuna Orain.

[etorkizunacraikiz.eus](http://etorkizunacraikiz.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ERAIKIZ



# eskatu euskaraz eskaini



# eskatu eskaini euskaraz


## Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun  
hitzaren arabera izango  
direla zure harremanak?

*Euskadi, auzolana, bien común*



**eta kitto!**  
EUSKADIA ERROTZEAN



#eibarrenbadakagu #erosieibarren.eus